

MAIALEN LUJANBIO -BERTSOLARIA-

## “Orain lau urteko txapelketatik arantza bat daukat sartua barruan”

■ Aurten oso zentratua dagoela dio Maialenek, finalean kantatzeko motibatua ■ Favorito nagusi Egaña ikusten du, aurrekoan adina erraza ez duela izango badio ere ■ “Bertigo pixka bat” ematen dio txapelean pentsatzeak.

**BERTSOLARI** Txapelketa Nagusia iritsi da azken muturreraino. Hernaniar bat finalean dugu: Maialen Lujanbio, eta finalurrekoetan puntu gehien lortuta gainera. Maialenez gain Hernaniko Bertso eskolako Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze ere hor dira, eta baita *Iraulio Pantaloneko intxada* guztia ere, gaur final haundian, ezarriak urratzeko pronto.

■ **KRONIKA:** Finalaren atarian, orain artekoaz zer balorazio?

MAIALEN: Neroni inoiz baino zentratuago atara naiz, inoiz baino serioago. Finalurrekoetan sentsazio onak izan ditut, eta lortu dut jarria neukan helburua: finalera sartzea.


Txapelketari berari dagokionez, maila oso ona izan da. Aipagarriena, hasieran ez zetozeela esan zuten bertsolarien faltarik ez dela nabaritu.

■ **Txapeldungai jarri zaitu zenbaitek. Zure burua ikusten al duzu hor?**

Zortzikotean edozein izan liteke txapeldun, baina, nire favorittoa Egaña da, noski. Argi dagoena da aurten ez duela aurrekoan adina erraz irabaziko, jendea askoz preparatuagoa dator-eta. Aurrekoan erantzukizunik gabe pasa ginen finalera, egin beharrekoa eginda. Aurten, dena irabazteko daukagu, baina, erantzukizun haundiagoarekin.

Txapeldun izan nintekeela diotenaren bueltan, jendea uste det azkarregi zebaten dela; periodistak gehien bat.

■ **Baina egitan, irabazi nahi al duzu txapela?**



Maialen etxeko balkoian. Zenbat bertso entzun ote du barandu honek.

Pentsatze hutsak bertigo pixkat ematen dit. Barruko grinak baitetz esaten dit, baina, rasionalki pentsatuta ez dakit nahi dudan, urte osoan zer suposatuko lukeen pentsatuta. Txarrena da sinistuta joan ezean ezingo dudala dena eman. Hortara mentalizatu beharra daukat.

■ **Txapelketa nagusiaren historian, finalean lehen emakumezkoa, aurten ere bakarra... nola bizi duzu hau?**

Guzti honetaz gutxiena konturatzan geranak ni eta ingurukoak geralakoan nago. Nahiz-eta onartu balio sinbolikoa baduela, barrutik ez da jendeak uste duen bezala bizi. Nik ez det egindakoa borroka

bat bezala bizi, bide natural bat izan da niretzat.

■ **Hernaniko bertso eskolatik 3 finalean. Zeren ondorio da hau?**

Izkutuko lan baten ondorio, dudarik gabe. Txapelketa hau guztia ere bertso eskolen lanaren ispilu bat da. Neri Hernaniko bertso eskolak asko eragin dit, bertso maila hobetzeko bainogehiago, bertsoa bizitzeko. Babes haundia da, eta ez txapelketan bakarrik: gure eztabaidak, kritikak, dudak... non azaldua badaukagu.

Hala ere, aurrera begira, eztabaidatu eta irauli bat eman behar diogu. Inertziatz funtzionatzeko arriskua dago bestela. □

### ESANDA BEZALA

■ “Orain lau urte despistatuta pasa zitzaidan finala, eta aurten gozatu egin nahi det. Bertsolaritzako plazarik ederrenetako disfrutatu beharra dago”.

■ “Txapelketa hau ez da tranpolin haundia izan bertsolari ezezagunentzat; betikoak pasa gara finalera. Aurreko faseetan ere nibel haundia egon da, ordea, eta horko bertsolariak gogoan hartu beharko lirakeke plazatarako”.

■ “Bertsolari gazteak publiko gaztea mugitzen du. Belodromoak itxura espektakularra eta motibagarria izango du”.

■ “Bertsolaritza borroka bat bezala bizi izan banu, seguru asko ez nintzatekeen hemen egongo”.

■ “Final ostean neurria hartzea kostako zaigu. Bertsolaritzari zenbat eskeini nahi diogun ikusi eta moldatzen saiatu beharko du finalista bakoitzak”.

■ “Bertsotan nahi dudana esateko erabiltzea gustatuko litzaidake txapelketako prestakuntzan hartutako errekursoak”.

BERRIAK ELKARTEA

### Gabonetako zozketan bederatzizari izango dira

■ BERRIAK elkarteak zozketa antolatu du Gabonetarako. Elkarreko 73 dendak ari dira boletoak banatzen eta sariak ere berak jarri dituzte.

Zozketa abenduaren 29an izango da. Bederatzizari izango dituzte sariekin (600 mila pta). □

EMAKUME ZENTRUA

### Eguberrietako sukaldari kurtsiloa

■ EMAKUME zentruak sukaldari ikastaroa antolatu du aurten ere. Irakasleak *Luis Irizar* sukaldari eskolakoak izango dira.

Datorren asteartean izango da (abenduak 18), 16:00etan, Biteri Kultur Etxean. □

‘BELKARA’  
AUZO ELKARTEA

### Krossa Karabelen, gaur

■ KARABELGO *Belkara* auzo elkarteak krossa antolatu du gaurko. Zirkuitoak 2.075 metro ditu. Kategori bakoitzak dagokion bul-tak emango dizkio zirkuitoari. Apuntatzeko, hasi baino lehen han bertan. Karrera 10:30etan hasiko da. □

OKINDEGIA  
**ANTZIOLA**  
Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3  
Tel. 943 55 17 91  
HERNANI

Xarobe  
DELICATESSEN  
SINCE 1983  
Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI  
© 943 55 21 27  
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net



GasHernani

**GasHernani**  
Zure etxerako  
energia naturala  
**GAS NATURALA**  
Eguberri zoriontsuak opa  
dizkizuegu!

Gudarien Enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20120 HERNANI

SANTA BARBARA  
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 Tel. 943 551 139 - 943 551 979

**Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoaz aldatzen ditugu**

Peugeot 306 XSDT	SS-BD	1.675.000 pta
Peugeot 106	Diesela - 5 ate	675.000 pta
Peugeot 205	Gasolina- 5 ate	580.000 pta
Peugeot 205	1.8 Diesela - 3 ate	550.000 pta
Peugeot 205	Gasolina SS - V	170.000 pta
Ford Scort	1.6 - 16 balbula	550.000 pta
Citroen AX	Diesela 1.4 - 4 ate	390.000 pta
Renault Express	Diesela 1.6 SS - AJ	490.000 pta
Land Rover	Diesela SS - P	285.000 pta
Furgoneta Transit	Mixta SS-AL	575.000 pta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...



## ■ SOKATIRA

### Tiralariak behar dituzte 'Auzolan' taldean

■ Nesken taldea hernaniar eta oiartzuarrek osatzen dute ■ Denboraldia urtarrilean hasiko da ■ "Oso motibatuta" daude aurtengo Euskadiko Txapelketarako.

SOKATIRA talde gutxi da, eta nesketan zer esanik ez. Hemen inguruan Astigarragako *Auzolan* taldea dago, tiralari guztiak Hernani eta Oiartzungoak badira ere.

Urtarrilean hasiko da Euskadiko txapelketa, eta hilabete eta erdi inguru irauten du. Ondorenean Munduko Txapelketa jokatu dira Irlandan.

#### JENDE BILA

Auzolan taldea irriki bizian ari da entrenatzen. Tiratzeko lain lagun badira, baina, jende gehixeago ere gustora hartuko luketela esan diote Kronikari. Inor animatzen bada **653-718305** telefonora deitu (Arrate). □



Perurenako frontoian entrenatzen dute Auzolaneko sokatiralariak.



Sarituak eta sari emaileak pinxto pila galanta jan ondoren.

#### AEK EUSKALTEGIA

### 'Santioren Kutixia'k irabazi zuen pinxto lehiaketa

Ostiral gauean usain goxoak eta festa giroa zeuden AEKko lokaletan. Pinxto txapelketan Galiziar errezetak irabazi zuen: Arkume hankaz egindako Krepeak. Bigarren Bakailu pinxtoa gelditu zen, epaileen hitzetan, "oso fina". Hirugarren txanpinoi alaiak izan ziren, eta pinxtorik orijinalena Oasis marrokiarra. □

## JASOTA BEZALA

Hernaniko ETXERATEk (Senideak-Gureak) Ertzantzaren patruila batek, eta bereziki agente batek, gure elkarteko kide batekin izandako jokabide harro eta iraingarria salatu nahi du.

Azaroaren 29an gaueko 10:45-etan, Etxerateko bi kide hurrengo eguneko konzentrazio ixilerako kartelak jartzen ari zirela, polizia autonomikoaren patruila bat inguratu zitzaizen. Txofer zijoan agentek kotxetik jeitsi eta zertan ari ziren galdetu ziren. Erantzuten bukatu orduko, beste agentea ere kotxetik jeitsi zen, eta besterik gabe ETXERATEko bi kideak

iraintzen hasi: "cerdos", "antiocologistas" eta "asesinos" esanez. Hauek errespetu gehiago izan zezala exijitu zioten eta bere hitzak neurtu zitzaizkela eskatu. Hala ere, Ertzainak, irainekin segi zuen jokabide prepotentez. Detenituta eramango zituztela mehatxu egin zien "por contestastar a la autoridad"; eta ondoren "que se fueran a Cáceres" gehitu eta indarrez kartelak kendu zituen. ETXERATEko kideak identifikatu egin zituzten; hauek Ertzainei plaka zenbakiak eskatu zituzkieten, baina, "no nos sale de los cojones" erantzuna jaso zuten. Hernaniko ETXERATEk, Er-

tzantzaren jokaera bortitza eta iraingarria salatzeaz gain, senitatekoen eskubideen defentsan jarraituko duela argi utzi nahi du. Ez inork ez ezerk ez digu galeraziko, ehundaka familiak eta milaka errepresaliatu politikok bizi duten egoerari buruzko informazioa gizarteari zabaltzea. Eta ezta konfliktuari amaiera emateko euskal gizartearengandik, solidaritatea eta konprometuz jasotzea ere.

Hernaniko ETXERAT (Senideak-Gureak) 2001eko abenduaren 10ean.

## ■ HITZ BITAN

### ✓ FUTBOLA

**Berriz ere liderraren kontra jokatu du Hernanik; oraingoan etxean.** Hernanik Elgoibar lidera hartuko du etxean. Joan den astean Tolosari irabazi zion eta lehenbiziko postua galduarazi. Hiru partidu irabazi dituzte jarrarian eta inori bildurrik ez diotela esan digu entrenatzaileak; lider dijoztelako ez behintzat! Partidua Zubipen, gaur, 16:30etan.

### ✓ ODOL EMAILEAK

**Loteria salgai, Portalondo estankuan.** Arduradunek esan digutenez, Gabonetako loteria salgai dago, oraindik, Portalondo estankuan, Plaza Berrian.

### ✓ EHIZA TXAPELKETA

**Hernaniko ehiza txapelketa, gaur, Epelen eta Usoko errekan.** Gaur eta datorren igandean jokatu da ehiza txapelketa. Bi egunetan puntu gehien biltzen dituenak irabaziko du. Hasi, 10:00etan hasiko da, baina, ehiztariek 09:00-tarako han behar dute.

### ✓ ERRUGBIA

**Seniorretan Hernani-Mungia, gaur, Landaren.** Seniorrek irabazteko partidua dute. Mungiak 4 puntu ditu, Hernanik 6; irabazita urruti utziko lituzkete. Gaur, 12:00etan. Atzo, jubentzen irabazi egin zuten Elorrioren kontra 48-0.

### ✓ WATERPOLOA

**Mutlen aurreneko taldeak aukera oso ona dauka irabazteko.** Sestaoren kontra jokatu du etxean. Sestaok ez du oso ekipo gogorra eta Hernaniko ekipoak irabazi beharra dauka. Kiroldegian, gaur, 13:00etan. Atzo, beste bi taldeek galdu egin zuten: neskek 7-9; mutlen bigarren taldeak 10-8.

### ✓ BOLEIBOLA

**Hernanik 3-1 irabazi zuen atzo Sestaoren kontra.** Cerdanen taldea erreparorik gabe ari da ligan. Atzo ere irabazi egin zuen eta partidurik galdu gabe jarraitzen du. □

## AGENDA

◆ **ZINEA**  
*Doraemon*  
Biterin, 17:00etan.  
*Scary Movie*  
Biterin, 19:30etan.

◆ **MUSIKA**  
*Trakets*  
Oialumen, 19:30etan

◆ **BERTSOLARITZA**  
*Euskal Herriko Txapelketa*  
Belodromoan, gaur 11:00etan

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750  
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

### ✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Correa  
Antziola 44  
☎ 943 551933  
▶ Gaez: Correa  
Antziola 44  
☎ 943 551933

# Urdin

**Osagarri, opari edo lurrinen bila bazabiltza, Montebideo kalean aurkituko duzu orain behar duzuna: Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar.**

**URDIN Osagarri Denda**

Montebideo kalea 1 (EPO eta atletismo pista artean) - HERNANI

## JOMARI

Kale Nagusia, 7  
☎ 55 00 32  
HERNANI

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA  
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

## ARALAR TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

## Jatetxea

### Venta Berri

Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxita.

Skoda Octavia. Bizi guztia

**OCTAVIA eskura 1.950.000 ptatik. aurrera\* (11.719,74 euro\*)**

\*Penintsula eta Balearetako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 1.4 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

## MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43